

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroak 25,8 milioiko desbideratzea du defizitaren helburuari dagokionez, eta % 0,84koa da orain

*Foru Gobernuak defizitaren helburua % 0,14an ez dela bete baieztatu du, % 0,7an finkatu zen helburua*

Miércoles, 24 de febrero de 2016

Nafarroak 25,8 milioiko desbideratzea aurkeztu du defizitaren helburuari dagokionez, eta orain % 0,84koa da, gaur goizean Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilari Mikel Aranburuk jakinarazi duenez. Kontseilariak defizit-helburua % 0,14an ez dela bete baieztatu du, % 0,7an finkatu zen helburua.

### Guztira, Foru

Komunitateak finantzarioa ez den 162 milioiko aurrekontu-saldoa du (haietatik 70, 2015 Hitzarmeneko ekarpen ekonomikoari dagozkio; 33, gizarteratzeko errentari eta 15, martxoko aparteko ordainsariaren % 25 ordaindu izanari), eta -101 milioikoa, estatu-mailako kontabilitateko doikuntzetan. Zifra guztiak aintzat hartuz, defizita 263 milioi euro da, eta handik 72,9 Hitzarmen Ekonomikoaren doikuntzei dagozkie (2013 eta 2014) hala kontatuko ez zirenak, aurreko Foru Gobernuak helarazi zuenez. Beste 13 milioi ere ez dira zenbatuko, C hepatitisaren botika-gastuak izateagatik.

Gainera, estatu-mailako doikuntzetan eragin txarra izan dute C.A. Osasunari ordainean emandako 15 milioiak (kopuru hori ez zegoen aurreikusita) eta Canasari emandako 8,5 milioiko maileguak (defizit modura zenbatu behar ez ziren ekarpenak, Ogasuneko irizpidearen arabera).

Datu horiekin, Nafarroak defizitaren helburua ez du bete, 14 ehunen, baina zifra horrek ez dio Nafarroaren kaudimenari eragingo, zenbateko txikia baita, Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilari Mikel Aranburuk adierazi duenez.



Ogasuneko kontseilariak adierazi duenez, desbideratzeak ez dio Nafarroako kaudimenari eragingo, zenbateko txikia baita.